

TOKIKOM

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2010eko ekainaren 4a / 281. zenbakia / 21. urtea

- **HERRIKO KONTUAK 'Ondarroa 12 milia' ekimena** 05
- **IRITZIA Laura G. de Txabarri** 18
- **KIROLA Zarautz-Aia herri-krosa** 08
- **MOILA BAZTERRETIK Jon Agirresarobe** 19
- **AIAKO BERRI Sare sozialak** 10
- **HERRITARRA Karmele Garmendia** 25



**Bizi-bizirik** dator  
ostera Gozategi

Gozategi 6. diskoa  
kaleratuko du ekainaren  
erdialdean. Haren  
inguruko detaile guztiak  
kontatu dizkigu  
Asierrek, primizian.

#Gipuzkoa

lan  
munduratzea

herrilan  
eta azpiegiturak

teknologia  
eta berrikuntza

enpresei  
laguntzea

# Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea  
eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren  
aldeko apustu irmoa dela medio.

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

karkara@karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**Mikel Aranzabal, Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta  
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Ibai Bastos, Jaime Colado, Laura G.  
de Txabarri, Iñaki Gurrutxaga,  
Herri natur taldea, Jesus  
Makazaga eta Nikolas Zendoia**Laguntzaileak**

Jon Agirresarobe eta Iñaki Iturain

**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Ekiñe Miralles eta  
Goiuri Unanue (Orio)  
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.300 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Aniztasun eguna 2010

**ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA**

Bi mila ta hamarra  
oriyoko plazan,  
aniztasun alde  
jai eder bat bazan,  
kantari zurrutean,  
tertulian, dantzan,  
munduko oriotarrak  
geran esperantzan.

Maroko, saharar nahiz  
senegaldar gazte,  
zuen berotasunaz  
kutsatu gaitzeko,  
gure herriko parte  
sentitu zaitezte,  
euskara dabil zuen  
beroaren eske!

Papera badeu, Ximon  
boli bat ekarri,  
gutun bat idazteko  
Simon Bolibarri,  
moralez ez gaudenez  
hortaraino larri,  
Evoluzionatzen  
lagundu elkarri.

Hemen Zanko daukagu  
ta han berriz samba,  
han kaipiriña hemen  
hartzen degu salda;  
Euskal Herri tropikal  
bat posible al da?  
Sagardotegietan  
piscoak edanda!

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

**LAGUNTZAILEAK**

Eusko Jaurlaritzak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Udalaren erantzunaren zain

Bi urte jarraian kanpinean lanean jardun eta gero, aurtengoan kanpoan geratzea tokatu zait; pena! Badaezpada, azterketa berrikustera joan nintzen eta zuzenketa gaizki egin zegoela ikusi nuen; nire ustez, okerra zen Udalak ona bezala emandako erantzuna. Azterketa berrikustea eskatu nuen ustezko akatsak (zortzi) zein ziren esanez, eta internetetik ateratako justifikazio batzuk erantsiz.

Badaezpada ere gertutik jarraitu nuen berrikuste hori eta zortzitik lau onartu egin zizkidaten; ez dago gaizki. Hori dela eta, aldaketa batzuk egon ziren lanpostuetako zerrendetan eta segituan kale-ratuko zirela esan zidaten. Zerrendako bigarrena eta hirugarrena postuz aldatzen zirela esan zidaten, eta ordeko bat aldatu egiten zela ere bai.

Egunero pasatzen naiz kultur etxe aurretik eta oraindik ez ditut zerrenda berriak ikusi. Dagoeneko lanean hasita egongo dira gutun hau kale-ratzen denerako eta oraindik zerrenda berririk ez. Egindako eskaeraren erantzun ofizialik ere ez dut jaso oraindik.

Hori da barre aurpegira egitea, hori! Gauzak gaizki egi-

ten hasita, baita gaizki egin ere. Ez duzue lotsa apurrik! Ea egunen batean ondo funtzionatzen hasten zareten. A, oraindik ez da horretarako garaia, hauteskundeak urrun daude eta...

LANDER SARASOLA

## Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari

Udalbiltzaren aurkako epai-ketak badu data: uztailearen 15a. 22 pertsona epaituko dituzte bere lana betetzeagatik, Euskal Herriaren alde jarduteagatik, hain zuzen. Haien alde babesguneak sortu nahi ditugu auzo, herri, eskualde eta Euskal Herri osoan eta Madrili argi eta garbi erakutsi herri honek, jada, eman duela bere iritzia: errugabeak direla eta, beraz, aske behar dutela bai epaituek eta baita instituzioak, Udalbiltzak, berak ere. Hori dela eta datozen egun eta asteetan lanari ekin beharko diogu, auzipetuei gure babesa helarazteko, eta Madrildik datorren eraso berri honi aurre egiteko. Horretarako deia luzatzen dizuegu herritar orori eta, nahi izanez gero, parte har dezazuen antolakuntzan eta egin-goto diren ekimenetan ere. Dena

azaltzeko, Herri Batzarra antolatuko dugu ekainaren 11n Orioko kultur etxean arratsaldeko 19:00etan. Bien bitartean, norbaitek parte hartu nahi izanez gero, hona hemen gure helbide elektronikoa: [jkl@oriokoudala.com](mailto:jkl@oriokoudala.com).

ORIOKO EZKER ABERTZALEKO  
UDAL TALDEA

## Hormaren beste aldetik

Iñigo Fernandezek azken KARKARAN egindako idatziari arretatik heldu nahian, hantzen egiten dituen galderei erantzun nahi genieke:

Hondartza inguruak azken 15 urteetan egin duen aldaketa ikaragarrien aurrean, kirol portuaz, etxebizitza planaz eta kanpina txikitzeaz buruz, beste herritar asko bezala, gure jarrera kritikoa azaldu genuen. Baina, horrez gain, alternatiba bat aurkeztu genuen, plano eta guzti.

Bestelako kontua da kanpoko eskoilera eta gaur egun eraikitzen ari diren arrantza ekipamenduari buruz izan dugun jarrera. Egia da hondartzatik begiratu, paisaiaren edertasuna oztopatzen duen horma modura ikus daitekeela eskoilera hori. Baina ez zegoenean, denok dakigu zein arriskutsua zen baporeentzat

itsasora ateratzea edo itsasotik sartzea. Gaur egun 8 arrantza ontzi daude herrian; garai haietan 20 ziren. Ziur gaude arrantzaleei eta makina bat herritarri lasaitasuna ematen diela hormak eskaintzen duen babesak.

Egiten ari diren eraikuntza berriari buruz: lehen aipatutako garai berdintsuetan arrantzaleek egindako eskaria izan zen eta guk Udaletik babestu egin genuen. Nahi baino beranduago hasi dira lanak; baina, ustez, beharrezko ekipamendua da. Egunero, beste inon ez bezala, ikusten ditugu arrantzaleak tresneria errepide aldamenean karrora sartu eta lonjetan gordetzeko eskuz garraiatzen. Ditugun baliabideekin arrantza eta itsasoko jarduerak sustatzea da gure asmoa.

Hondartzako egoerari buruz, zerbait egin beharra dagoela esaten duzunean, arrazoi osoa duzu. Hondartzaren kudeaketaren ardura dun Udala, Itsasertzeko Zuzendaritza eta Diputazioa dira. Hilabeteak daramatzagu bilera bat egin nahian, hondartzaren egoera hobetzeko. Bilera horien berri izango duzue interesa duzen eragile, herritar eta enpresa orok,

26. ORRIALDEAN  
JARRAITZEN DU



**AMILIBIA**  
ONTZIOLAGIA, S. L.

lurrik partuean proiektu eta instalazioak  
gai orolako erabilerarako urrun-ontziak



Oleasaga, giza auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
[amilibia@amilibia.com](mailto:amilibia@amilibia.com)  
[www.amilibia.com](http://www.amilibia.com)

**uranga**  
autozerbitzua



**Aliprox**

Enche Gudarri Kalea 13-15  
01010  
943 83 38 75



**A&E**  
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañeta pl. 8 Orlio

Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91



**ANTILLA**  
jalekariak

Alonsart kalea, 2 - 771.010.83.29.00



**Allianz**

**Marigre Zaldúa**  
aseguru agentzia

Ibañeta, 10 behe-oina  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
[www.marigre@allianz.com](mailto:www.marigre@allianz.com)

HERRESTAKO ONTZIAK ETA SAREA DARABILTENAK HORTIK KANPORA ATERATZEA PROPOSATU DUTE

# Itsasoko lehen 12 miliak artisau-arrantzarako bakarrik

Sarea erabiltzen duten arrantza-ontziak arrain bila lehen 12 miliatik kanpora ateratzeko proposamena egin dute *Ondarroa 12 milia* adierazpenean.

Itsasoko lehen 12 miliak babestutako eremu izendatzeko eskatu berri dute Ondarroan Leo Belaustegik –jubilatutako arrantzalea– eta Rafa Perezek –Mutriku Natur Taldeko kidea–, agiri baten bitartez eta Orioko Herrio natur taldeak babesa eman dio idatzari. Idatzian jasotakoaren arabera, artisau-arrantza baino ez litzateke baimenduko ur eremu horretan. Itsasoko bioaniztasuna zaindu eta arrantza tradizionalak indartu nahi dituzte modu horretara, *Ondarroa 12 milia* ekimena martxan jarrita. Beharrezko ikusten dute herrestako arrantza Frantziako mugatik hasi eta Bizkaiko Punta Lucero arteko itsasoko lehen 12 miliatik kanpora eramatea, arrantza-kalak berritzeko. Mota guztietako arrantza debekatuta egongo litzatekeen erre-serba guneak izendatzea ere eskatu dute idatzian.

Orioko kofradiako idazkari Leandro Azkuek, ordea, ez du gogoko neurria: *Artisau-arrantza egiten duena babesten dugu eta herrestako ontziak eremu horretatik ateratzearekin ere ados geundekete, baina zaku berean sartu gaituzte herrestakoak eta sarea erabiltzen dugunok; ez da bidezkoa. Pasarako arraina arrantzatzen dugu guk, batzuetan 12 miliatik kanpo eta besteetan barruan. Non harrapatu behar ditugu antxoak, sardina...?*

Adierazpenaren sustatzaileek erabilitako formekin ere ez dago konforme: *Prensa ohar baten bidez jakin*



Montserrat Berria baporekoak, harrapatutako antxoak lehorreratzten, Getariako portuan.

KARKARA

*genuen Ondarroa 12 miliaren berri, gainerako komunikabideekin batera; proposamena osatzerakoan, gurekin ez dute kontaktu.*

## BEREHALAKOA

Arrantzatze modu suntsitzailea erabili izanak –arrantzatze ahalmena eta arrainak atzemateko teknologia

oso azkar garatu izanak, harrapaketak behar bezala kontrolatu ez izanak...– dozena bat arrain espezie desagerrarazi dituela –bisigua, toila...– eta bost-sei urtez berdin jarraituz gero, gainerakoak ere galduko direla argi du Perezek: *Jurisdikziopeko urak orain babestu behar dira, bestela ez lirateke eta kalak bere onera etorriko.*

Txosten teknikoak idazteko daude orain Belaustegi eta Perez, proposamena nolagauzatu azaltzeko. Hortik aurrera, Espainiako Gobernuarekin elkarlanean hasi beharko dute. Zerbait lortzeko esperantza badute, Europako Batasunak itsasoaren %10 eta %20 artean babesteko eskatzen duelako eta Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldean %0,5a bakarrik babestu delako.

## Arrainik gabe ez gelditzeko

Orioko arrantzale ohi bati entzun genion aspaldi: *Ahal genuen guztia harrapatzen genuen, inongo erreparorik gabe. Itsasoa denon artean hustu dugu. Horri kontra egitea gezurretan ibiltzea litzateke. Berandu omen da dagoeneko berriz ere itsasoa arrainez beteta ikusteko. Galdera bakarra geratzen zaigu orain: berandu ala beranduegi?*

‘Ondarroa 12 milia’ ekimenaren helburua beharrezko babes neurriak ezartzea eta oraindik desagerrarazi ez ditugun espezieek biziraun dezaten bermatzea da. Oraingook ez ezik ondorengoek ere, herria alderik alde gurutzatzean, parriletako usainarekin tripa zorriak dantzan senti ditzaten.

HERRIO NATUR TALDEA

UDALAREN EGUNEROKO MARTXA BERMATZEKO 5 KREDITU ALDAKETA

# Alkatearen eta liberatutako zinegotzien soldatak izoztuta

**Hartutako erabakiekin batzuk gustura baziren ere, ezkerreko blokea puskatzeagatik kexu agertu zen EB-Berdeak taldeko Iñaki Garcia.**

Maiatzaren 25ean, Orioko Udaleko ohiko udalbatzara egin zen Udaletxean. Ia bi ordu iraun zuen bilkurak. Martxotik bilerarik egin gabe zuden eta 21 puntu zituzten zinegotziek aztertzeko eta hurbildu ziren herritar askoren aurrean hartu zituzten erabakiak.

Agian, garrantzitsuenak Udalaren funtzionamendua bermatzeko luzatutako 2009ko aurrekontuaren bost kreditu aldaketei zegozkienak izan ziren, 2.439.394 euro gutzira. Aralarreko Iñaki Iturainek esan zuen bilera asko egin direla akordiora iristeko eta, nolabait, 2010. urterako aurrekontuak direla horiek. Ezker Abertzaleko Leire Zinkunegik begi onez ikusi zituen aldaketak: *Kreditu aldaketa horiek direla-eta, gaztetxearentzako, kanpineko azterketa egiteko eta bidgorriarentzako diru-partidak lortu dira, beste gauza batzuen artean.* Eako Bixente Lasak pozgarritzat jo zuen lortutakoa, baina EB-Berdeak taldeko Iñaki Garcia bestelako iritzia zuen: *Proposamen batzuek aurrera egin badute ere, ezkerreko blokea puskatu da eta, gehiengoa izanda, ezin izan dugu nahi genuen guztia lortu.*



Gai bategatik edo besteagatik, ikusmin handia sortu zuen bilkurak.

KARKARA

**2011ko jai eguna ekainaren 29a, San Pedro eguna, izendatu zuten, Garciak herritarrei galdetzea eskatu bazuen ere**

Erabaki gehiago ere hartu zituzten, hala nola, alkatearen eta liberatutako zinegotzien

soldatak izoztu zituzten Udalbatzarrak, ezker abertzalearen inizatibaz, eta 2011ko jai eguna ekainaren 29a, San Pedro eguna, izendatu zuten, Iñaki Garcia herritarrei galdetzea eskatu bazuen ere.

Mozioen artean, nabarmentzekoa da EB-Berdeak taldeak frankismoaren biktimen desagertzeen inguruan aurkeztutako mozioa zela-eta, EAJ eta Aralar talde politikoek ere mozio alternatibo bana aurkeztu izana. Azkenean, hiruak onartu ziren.

## LABUR

### LITERATURA

## Urruzuno saria

Martxoan Resurreccion Maria Azkue sarietan aipamen berezia lortu eta gero, Goiuri Unanuek Eusko Jaurlaritzaren Urruzuno saria irabazi du *Ipuin bat ordubetezko izkribatzeko idazlanarekin*. Iaz ere, finaleraino heldu zen.

### UDAL ELKARTEA

## Idea lehiaketa

Urola Kostako Udal Elkartearen Enpresa-ideien 3. Lehiaketa irabazi du Borja Menaren eta Ainhoa Imazen taldeak, *The Zuzu Wave* surfeko taulak gordetzeko kutxa-sistemarekin. Finalean, aiar bat ere izan da: Ane Miren Urio.

## Lan eskaintza

Urola Kostako Udal Elkarteak Urola Kostako leku publikoetan eraikuntza, pintura eta lorezaintza lanak egiteko eskualdeko brigada sortuko du. Enkargatua eta 8 langile behar dituzte eta interneteko [www.redtrabaja.es](http://www.redtrabaja.es) atarian eman behar da izena.

### SAN ANTONIO

## Bazkaria

Ekainaren 13a San Antonio eguna dela eta, bazkaria egingo dute Orioko jubilatutako arrantzaleek. Hilaren 9a baino lehen eman behar da izena, kofradian.

**ZAPATA KONPONKETAK**

Lehendakaria: 09.00 - 21.00 eta 24.00 - 28.00  
Larimartetatik: 09.00 - 13.00  
Herriko enpresa, Oriko

ASADOR  
**XIXARIO**

Herriko enpresa, Oriko  
Tel. 943 92 019 - 0100

**Zaragueta Eskola Orto**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hazkuntza.net

**ZINGIRA Intertxan**

Herriko enpresa, Oriko  
Tel. 943 83 37 82  
943 83 37 82  
Herriko enpresa, Oriko

EGUN OSORAKO EGITARAUA ANTOLATU DU ORIOKO ERRAUSKETAREN AURKAKO TALDEAK

# Errausketari ezetz esateko eguna izango da ekainaren 6a

Zubietako lurretan egitekoak diren erraustegiaren lanak hasteko daudela, zaborra gestionatzeko era horren aurkako eguna antolatu dute ekainaren 6rako.

*Errausketarik ez!* eguna antolatu du ekainaren 6rako Orioko Errausketaren Aurkako Taldeak, aurreneko aldiz. Zubietako erraustegia martxan jartzeak ekarriko lukeen egoera herritarrei ikustarazteko, egun osoko egitaraua osatu dute. Antolatzaileentzat argi eta garbi geratu da erraustegia ez dela beharrezkoa, badaudela beste aukerak eta bide horretan egindako lana erakutsi nahi diote herriari.

## EGITARAUA

Eguna hasteko, *Lurretik lurrera* ekimena aurkeztuko dute 11:00etan. Kosta Tailerreko parkearen atzealdean, garaian garaiko barazkiak landatzearen eta autokonpostatzearen onurak zein diren erakutsiko dute. *Bertako barazkiak osasuntsuak izatea nahi badugu ezin erraustegirik onartu, zuzenean kaltetuko lituzke gure lur eta arnasa* esan digu taldeak berak.

Hamaiketakoaren txanda izango da gero, Herriko Plazan, 12:00etan. Ordu berean hasi eta eguna bukatu arte ikuskizun eta informazio gunea ere izango da plazan



Orioko Errausketaren Aurkako Taldeko batzuk, *Errausketarik ez* eguneko kartelak eskuan dituztela.

KARKARA

bentan: alde batetik, *Zero Zabor* erakusketak hondakinen kopurua gutxitzea eta bilketa bereizita egitea errazten duten sistemen berri eman du. Hondakinen bereizketa tailerra ere jarriko dute Herriok eta Usurbilgo atez ateko batzordeak –zaborra etxetik ekartzea komeni da tailerrean parte hartzeko–; eta ikus-entzunezko txokoan Annie Leonarden film laburra... emango dira. 18:00etan, berriz, Ipu eta Ina ipuin kontalariak izango dira. Ekimen guztiak, gainera, musikaz alai-

tuko dituzte, jai giroa nagusi izan dadin.

## DEIALDIA

Usurbilgo Itunaren sinatzaileek deituta manifestazioa izango da ekainaren 20an Donostian, *Osasuna atez ate, errausketarik ez* lemapean. Bulebarrean hasiko da eta kalera atera eta han izatearen garrantzia azpimarratu du Orioko Errausketaren Aurkako taldeak.

## USURBILGO ITUNA

Usurbilgo Ituna onartu zuen

**Erraustegia ez dela beharrezkoa eta bide horretan egindako lana erakutsi nahi du Errausketaren Aurkako Taldeak**

maiatzaren 25ean egindako ohiko udalbatzarrean Udalak; hortaz, atez ateko bilketaren alde egin du, 5. edukiontzia jartzea baztertuz.



**RAMIRO**  
argazkiak

•ezkontza erreportajeak  
600 eurotik gora  
•jaunartzeak  
50 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 697 668  
www.fotoramiro.com

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37



KARKARA inprentara bidaltzeko orduan 2 aiarrek eta oriotar bakarrak eman dute lasterketan aritzeko izena.

KARKARA

TXIKIEK ERE IZANGO DUTE LASTERKETA, 11:00ETAN HASITA

## Pagoetako lasterketa eta gero, Zarautz-Aia krosa

**14. edizioa izango du aurten Zarautz-Aia herri-krosak.**

Ekainaren 13an izango da Aia-ko eta Zarauzko kirol elkarteek antolatutako 14. Zarautz-Aia herri-krosa. Zarauzko Gipuzkoa kaletik 11:30ean aterata, 11.315 kilometro egin beharko dituzte parte hartuko duten kirolariek, aldapa gora eta aldapa behera, N-634 eta GI-2631 errepideetan barrena Aiara iristeko.

Izena eman nahi duena garaiz dabil oraindik: [www.herrikrosa.com](http://www.herrikrosa.com) web gunean sartu eta 4 euro ordaindu beharko ditu. Lasterketa egun berean eginez gero, 10 euro ordaindu beharko da.

Oraindik astebete falta bada ere, iazko parte hartzaileen kopurua urruti izango dela dirudi aurten, itxura guztien arabera. 96 korrikalari

izan ziren iazko edizioan eta 36 lagunek eman dute izena, oraingo; tartean, 2 aiar eta oriotar bakarra. Iaz bigarren izan zen Kaanachek, esaterako, ez du parte hartuko, belauan min hartuta, errekupe-ratio lanetan baitabil.

### TXIKIAK

Helduez gain, txikienek ere izango dute krosean aritzeko aukera, Aiako 3. Kros Txikia izango baita, 11:00etan. Aiako plazaren inguruan eman go dute buelta, 13 urte bitarteko haur eta gaztetxoek.

### ENTZUTETSUA

Euskal Herriko Zirkuituaren eta Mendiko Koparen baitan izan ez arren, sona handia du Zarautz-Aia lasterketak. Momentuko lasterkaririk abilenak eta bizkorrenak hartzen ditu urtero. Ikusi besterik ez dago zer nolakoak diren Martin Fizek eta Iratxe Aranburuk

### Zarauzko Gipuzkoa kaletik 11:30ean aterata, 11.315 kilometro egin beharko dituzte korrikalariek

jarritako markak: 36 minutu eta 30 segundo, eta 45 minutu eta 7 segundo, hurrenez hurren.

### PAGOETA MENDI LASTERKETA

Maiatzaren 23an egin zen Pagoetako Mendi Lasterketan Nerea Amilibiak lortu zuen emakumezkoen txapela, proba ordubete, 18 minutu eta 49 segundotan bukatuta. Bestalde, gizonezkoen artean, marka ezarri zuen Didier Zago korrikalari frantziarrak: 01:01:14.

## LABUR

### ARETO FUTBOLA Erdialdean

Bukatu du aurtengo denboraldia Orioko Tabernak taldeak. Maiatzaren 22an jokaturako azken partidan 4 eta 2 galduta, bederatzigarren postuan amaitu dute azkenean.

Jokatutako 30 norgehiagokatatik 11 irabazi dituzte, 14 galdu eta 5 berdindu. Guztira, 38 puntu eskuratu dituzte..

### KULTUR ANIZTASUNA Giro onean

Kultur Aniztasunaren Astearen baitan, sofbol eta futbol partida bana jokatu ziren maiatzaren 28an. 15 bat emakumezko aritu ziren sofbolean, umore onean; Euskal Herrikoak, brasildarrak, arabiarak...

Futbolean, berriz, senegaldarrak nagusi izan ziren; 3 eta 2ko aldeko emaitzarekin irabazi baitzioten mundu osoko jendeak osatutako taldeari. Sardinak eta arkumearen errekupe-ratio zizuten lehian galdutako indarrak.

### TRINKETA

### Planto final-laurdenetan

Trinketeko 4. Emakumea Pilotari Txapelketako bigarren mailako finalerdien atarian geratu da Maite Redondo oriotarra. Izan ere, maiatzaren 28an Iru-rako Ametsa trinketean jokaturako final-laurdena galdu egin zuten Redondok eta bikote duen Garmendiak. 21 tanto egin zizkieten aurkari zituzten Ranz eta Pagolari eta haiei hilaren 4an jokaturako den finalerdirako txartela eman zien era horretara.

Finala, berriz, ekainaren 11n jokaturako dute.



AIAKO IGOERA

## Betikoa txapeldun

Lasterketa irabazteko faborito zen Aitor Zabaleta eta bera izan zen maiaztaren 29an, Aiako 3. Igoerako txapeldun. Bere marka ia sei segundotan hobetu zuen gainera bergararrak, kronometroa minutu bat, 54 segundo eta 654 ehunenean geratuta.

Bigarren Angela Vilariño izan zen eta Ruben Nogueiras hirugarren.

Gidariez gain, errepi-dea ere protagonista izan zen, autoek irrist egiten baitzuten.

## ARRAUNKETA Dominak etxera

Orioko Arraun Elkarteko Edorta de Anta Lekuonak brontzeko domina lortu zuen maiatzaren azken asteburuan Egokitutako Arraunketako Munduko Kopan.

Bestalde, Kantauriko Arraun Elkartearen eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz, Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Liga antolatu da aurtengo denboraldirako. Bost ontzi arituko dira txapelketan lehiatzen: Getaria-Tolosa, Hondarribia, Pasai Donibane, Zumaia eta Orio. Lau estropada jokatu dituzte eta Donostian izango dute aurrenekoa, ekainaren 26a. Hurrengo estropada, berriz, uztailaren 18an jokatu dute, Orion bertan.

HARMAILATIK

# Futbola maite dugulako

**K**opetilan gaude. Urte asko daramatzagu Orioko futbol taldearekin lanean; gehiegi, agian. Batzuekin asmatu dugu, beste batzuekin ez. Baina, ustez, elkartearentzat onena delakoan egin izan ditugu gauzak beti. Denbora horretan, aspertuta alde egin dute batzuek; haserretuta, beste batzuek. Arrazoia dena delakoa izanda ere, horretarako aukera eman zaie; gutxienez, taldean izan dira eta zer dagoen ezagutu dute. Hala ere, haserre joan denari esan nahi diogu, ez aritzeko Orioko futbol taldeaz gaizki esaka; gure kudeaketarekin edo dena delakoarekin ez badago ados, jo dezala gugana, presidente edota zuzendaritzakoengana, zuzenean. Esateko daukana entzun egingo diogu eta irtenbidea ematen saiatu. Errespetu hori, gutxienez, zor-ko zaio elkarteari, ezta?

Entrenatzaile faltan ere bagaude, aurten, denbora gutxian, lauk alde egin digute eta. Futbola lanbide hartu nahi duten batzuei txiki geratu zaie gure elkartea eta goraino igotzeko aukera gehiago dituen taldeetara doaz; eskaparate ona behar dute. Hori ulertzen dugu. Baina, hiruzpalau urtez sortzen jardundako estruktura kolokan jarri da eta ez dugu hutsuneak betetzeko prest dagoenik aurkitzen. Orioko futbol taldetik pasatako herritar asko dago eta inork ez du ardura bere gain hartu nahi. Prestatzaile-akkanpotikekarri behar badi-

ozen esan nahi genuke hori: xoxik kobratu gabe.

Gu baino lan hobea egin dezakeenari etortzeko esan nahi diogu, atek irekita dituela eta. Lehen ez bezala, guraso asko eta asko etortzen dira seme-alabak jokatzeko ikustera eta lanerako gogoz dagoenari ongi etorria gustura egingo genioke. Ahal dugun guztia lagunduko dugu guk, belaunaldi berriek txanda har diezaguten; guk ikasitakoa haiei erakutsi eta prest dudenean, ontziaren lema har dezaten.

Lanean etengabe ari gara eta hasi ginenetik gaur arte kontuak erabat aldatu, hobetu, direla uste dugu; 3 taldearekin hasi ginen, garai hartan, 1998-99 denboraldian: kade-teak, jubenilak eta regionalak. Infantilak eta neskek ere gurekin futboleantzen dira egun; eta arraunean ez bezala, futboleantzen abilezia zuena kanpora joatera ez behartzeko sortutako futbol eskola ere badugu, 4 urtetik hona. Denera, 200 inguru haur ditugu: 120 federatuta eta 60 eskolan.

Getariarekin eta sofolekoekin ere elkarlan handia egin dugu, guztiok Mendibeltz zelaian kabitu ahal izateko. Ez dugu inolako arazorik izan. Mokokaldiren bat edo beste izaten da, beti ere, baina ezin gara kezatu alor honetan, behintzat.

Herri txiki bateko futbol elkarte bat gara, herrikoia, baloiarekin ibili nahi duten haur guztiei tokia egin nahi diena. Izan ezazue argi hori.



JESUS ANTONIO MAKAZAGA

JAIME COLADO

ORIOKO FUTBOL TALDEKO KIDEAK

**Entrenatzaile faltan gaude. Orioko futbol taldetik pasatako herritar asko dago eta inork ez du ardura bere gain hartu nahi**

**Xoxik kobratu gabe, futbola gustuko dugulako, gaude hemen**

tugu, dirua nonbaitetik atera beharko dugu laster.

Bestalde, gure lanari buruzko zurrumurruak eta gezurrak iritsi zaizkigu eta ez gaude horiekin ez ados ezta gustura ere. Xoxik kobratu gabe, futbola gustuko dugulako, gaude hemen, argi eta

**agirresarobe** ARKITEKTURA  
OSBA ETA PROIEKTUAK

ETXEBIZITZA ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK  
FATXADA ETA TERAZIEN ERABERITZE PROIEKTUAK, GORRALDIEN  
OSBA ZUZENDARITZAK, INFORMEAK, BERRIKOORDINAKUNTZA

OSBA BERRIKOORDINAKUNTZA, BIRBIZITZA, LURREK KURATZEA

OSBA AGIRRESAROBEN LURRERAK ARKITEKTURA  
ITURBIDE, S. ALEJOA, ZABALETA

TEL: 035 931 722

**2GURPIL**

Beaunilde 7 - 3 - 20010 Orio (Gipuzkoa)

TEL: 945 305 880 | WWW: www.2gurpilbizikletak.com | EMAIL: bigurp02@hotmail.com



Galdera erantzunen joan-etorria etengabekoa izan zen hitzaldiak iraun zuen ordu eta laurdenean.

KARKARA

GURASO GEHIENEI ERAGITEN DIEN GAIA IZANIK, BETE EGIN ZEN KULTUR ETXEA

# Sare sozialen arriskuak ezagutu zituzten gurasoek

**Baikarako Esther Martinezek sare sozialak zer diren azaldu zien gurasoei, zein arrisku dituzten eta horien aurrean nola jokatu.**

Maiatzaren 25ean, Lardizabal Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatutako sare sozialei buruzko hitzaldia egin zen Aian, nerabeak dituzten gurasoei zuzenduta. Kultur etxeko aretoa guztiz bete zen Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko Esther Martinez hizlariaren esan beharrekoak entzuteko eta, modu erraz eta arinean, Tuenti, Facebook, Myspace eta antzerako sare sozialak zer diren, zertarako erabiltzen diren eta zein arrisku dituz-

ten azaldu zien bertaratutakoei. Ondoren, aholku batzuk eman zizkien nerabeek ordenagailuekin duten harremana kontrolatzeko, batez ere Internetekin.

## ARRISKUAK

Interneten hurrek sexua erraz aurki dezaketela azaldu

**Internetek arrisku handiak ditu eta nerabeentzat nagusia datu pertsonalak sarean zabaltzea dela esan zuen hizlariak**

zuen Estherrek, baina lasai hartu behar dela, normalean bakarrik irekitzen diren leihoak izaten direlako. Beraz, ez dago zertan larritu momenturen batean eduki sexuarekin zerbait ikusteagatik pantaian. Legez kanpoko deskargakegitea ere arrunta dela azaldu zuen, *legeak onartzen*

**Ordenagailua egongelan jartzeko aholkua eman zuen, nerabeek egiten dutenak jarrera irekiagoa izan dezan**

*ez badu ere denok egiten dugun zerbait da eta polizia ez da zerbait deskargatu duenaren bila joaten, pirata handien bila baizik.*

Internetek arrisku handiagoak baditu eta nerabeentzat nagusia datu pertsonalak sarean zabaltzea dela esan zuen hizlariak: *Ez dakigu nor egon daitekeen bestaldean begira eta 14 urteko neska batekin berriketan ari direla uste badute ere, baliteke 40 bat urteko gizon batekin ari-tzea.*

Menpekotasuna ere sortzen du sare sozialetan ari-tzeak: *Tresna modura erabili beharrean, denbora-pasa huts bezala erabiltzen dituzte askotan, besteekin kuxkuxean ibiltzeko. Aldi berean, bullying*

edo jazarpen kasuak ere gertatzen omen dira sare sozialetan bidez, ikaskide bati irainduz aritzen direlako edo egozia ez den argazkiren bat jarri dutelako.

#### AHOLKUAK

Esther Martinezek azaldu zuenez, internet erabiltzeko ere hezi egin behar dira nerabeak: *Badakigu autoak arriskuak direla, baina horregatik ez ditugu seme-alabak etxean uzten. Arriskuak azaltzean hezi egiten ditugu; bada, Internet eta sare sozialekin berdin.* Ordenagailua egongelan jartzeko aholkua eman zuen, horrela, nerabeek han egiten dutenak jarrera irekia izango du eta ez pribatua. Aurrerago, nahi izanez gero, ordenagailua logelara eraman daiteke, behin helduagoak eta kontzienteagoak direnean. Arauak ezarri behar dira beti, ordu-tegiei edo edukiei dagozkienak eta betearazi egin behar dira. Ulertarazi behar zaie, baita ere, ezin dutela interneten agertzen den guztia sinetsi eta, aldi berean, gurasoek ikastetxeekin hitz egitea gomendatu zuen, zer neurri hartzen dituzten jakiteko.



Gehienak amak baziren ere, tartean agertu zen aitaren bat ere.

KARKARA

## Galdera eta erantzun batzuk

**Nola jakin dezakegu ordenagailuekin zertan aritzen diren?**

Gaur egun teknologiaren erabilera eguneroko gauza da eta askoz gehiago nerabeentzat. Seme-alabak ibiltzen diren horretan saltseatu behar dugu, zein diren markatu behar ditugun irizpideak jakiteko.

Zertan aritzen diren jakiteko modu egokiena berei galdetzea da. Esaterako, galdetu: zein datu pertsonal jarri dituzu profilean? Zer-nolako argazkiak sartu dituzu?

Horrelako harreman irekia ez badugu edo zuzenean ezer ez jakitea nahi badugu, badaude ezkutuan zelatatu ahal izateko programak, espia lanak egiteko.

**Parrandan argazkiak atera eta sare sozialekin zintzilikatzen dituzte eta gero, gainera, izenak jartzen dituzte argazkietan. Uste dut ez direla arriskuaz kontziente.**

Esandakoa, heziketa kontua da. Txikiak direnetik joaten bagara esaten aurpegia argi eta garbi agertzen den

argazkirik ez jartzeko eta ize-nik ere ez, azkenean, ondo ikasten dute.

Hala ere, konfiantza izan behar dugu berengan, askotan, uste baino arduratsuago jokatzeko baitute.

**Esan duzu gure gaztetxoek beharrezkoa dutela internet harremanetarako. Zenbate-raino?**

Badakizue hau nola den, gauza berri bat merkatura ateratzen denean denek probatu nahi dute eta sare sozial berri bat ateratzen bada ere denek erabiltzen dute. Etor-kizunean beren arteko harreman mota bakarra internet ez izateko, erreminta bat dela esan eta esan, azpimarratu, behar diegu.

**Seme-alabak ibiltzen diren horretan bertan saltseatu behar dugu, gero zein irizpide jarri jakiteko**

#### LABUR

FESTA

### Koadrila eguna

9:30ean, Pagoetara ibilaldia egingo da herriko plazatik. 14:00etatik aurrera, koadrilen arteko bazkaria izango da plazan eta jolasak izango dira bertan. Ondoren, erromeria.

Bazkaria koadrila bakoitzak eraman behar du, baina edaria, parrilla eta tresnak antolatutzak jarriko ditu. Izena emateko epea bukatu zen.

KIROLA

### Lur gaineko sokatira

Ekainaren 20an, 640 kilo arteko 2010eko Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa jokatu da kirol pista ondoko belardian. 11:30ean hasiko da proba eta Getxo, Goierri A, Goierri B, Areso, Mutriku eta Gaztedi arituko dira lehian.

IGERILEKUA

### Irekita

Ekainaren 12tik aurrera udal igerilekua irekita egongo da, 11:00etatik 20:00etara. Sarrerak eta bonoak bertako tabernan daude salgai. 8-15 urte bitarteko aiarrek 15 euro ordaindu beharko dute uda osorako bonoagatik eta helduek 25. Eguneko sarrerak 2 euro balioko du umeentzat eta 3 helduentzat.

GARBIGUNEA

### Irekita

Ubegun industriaguneko garbigunea martxan da dagoeneko. Asteleheneetik ostiralera, 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era dago irekita eta, larunbatetan, 10:00etatik 12:30era.

## AIAKO LEIHOA

# Maite ditut aldizkariak

**Z**ergatik? Herritar norbaitzun ahalegina eta lan xume bat direlako.

Baina aldizkariak irakurri egin behar dira. Hau da, aldizkari irakurgarriak argitaratu behar dira.

Herri txikietara mugatu nahi dut nire iritzia.

Herri txikietan, aldizkari mardulak argitaratu daitezke, herrian soilik eta xume jokotuta.

Ez da beharrezkoa mirarien bila eta dotorezietara joatea.

Bat, garrantzitsua iruditzen zait, letra ale dezentea izan dezala. Irakurle heldua asko baita gure herrirka hauetan. Eta jende helduak letra txikiari nekez heltzen diete.

Ez da beharrezkoa gauza askorekin bete eta argitaratzea. Irakurri erraza eta ego-

kia. Gaur jarri ezin direnak hurrengoan jarriko dira.

Jakina, idazkera euskara batuan edo "h" erabiliz behar duela. Hori onartu beharra dago. Ez nik idazten dudana bezala. Lehengo erara.

Baina, gure eskola garaian ez zen "h"-rik; eta orain zer hasiko naiz, aldaketa egiten?

KARKARAKOEI eskertzen diet nire idatziak herri hizkuntza xehean argitaratzen dizkida-

telako. Barka nire ezjakintasuna. Baina, nik uste dut, gure herrialde txiki hauetan, herri hizkuntza xehe honentzat badagoela lekua, irakurleen artean.

Nik Diario Vascorako egiten ditudan prosa bakarrak, gure herri hizkuntza xehean eginak izaten dira.

Eta telefonotik deitu izan didate, zenbait jende helduk esanaz, zuk jarraitu horrela

idazten, Nikolas; hori aisa irakurtzen dugu eta.

Zergatik ez du ba behar lekurik, herri hizkuntza xeheak nahiz eta onartzen ditudan euskararen erabilera arauak?

Direla urte batzuk, herri handixeagoko aldizkari batera bidali nuen idatzi bat. Esaten zidatelako, *noiz hasi behar dugu zure idatz lanak jasotzen?*

Nik sano bidali nituen, neuk nekien erara. Eta esan zidaten, era hartako idatzirik ezin zutela argitaratu.

Eskatu nien nire ezjakintasunaren barkamena.

Ez nien enbarazu gehiago eman nahi izan.

**Ez da beharrezkoa gauza askorekin bete eta argitaratzea. Gaur jarri ezin direnak hurrengoan jarriko dira**

**Gure herrialde txiki hauetan, herri hizkuntza xehearentzat badagoela lekua irakurleen artean, uste dut**

NIKOLAS ZENDOIA

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Jaunartzea

Maiatzaren 23an, 26 gaztek jaunartzea izan zuten, batzuk lehenengoa eta besteek nagusia. Hemen ditugu denak batera argazkian, elizkizuna bukatu ondoren.

Aurretik eta ezkerretik hasita: Aimar Aranberri, Ibai Azpiroz, Manex Albeniz, Aimar Iruretagoiena, Iker Amilibia, Miren Zipitria, Iñaki Urbieta, Beñat Hoyos, Joanes Zendoia, Ane Arruti, Eñaut Izeta, Oier Izeta, Itziar Zabala, Nora Zipitria, Garazi Eizmendi, Leire Arruti, Jon Aranberri, Iker Arruti, Leire Iruretagoiena, Itziar Gorostidi, Aroa Fernandez, Eneko Itxaso, Tamara Zuloaga, Udane Hoyos, Naiara Iruretagoiena eta Libe Esnal.



Gogo biziz hartu dute Gozategi taldekoek beren disko berriaren grabaketa.

KARKARA

ASIER GOZATEGI | GOZATEGI TALDEKO ABESLARIA ETA TRIKITILARIA

# “Berrizaleak gara, ez diogu goizeko haizeari abesten”

MIKEL ARANZABAL

**A**urten 15 urtebete dira lehen diskoa grabatu zenutenetik. Jendeak uste bezain polita al da musikariaren bizitza?

Jendeak eszenatoki gainekoa bakarrik ikusten du, eta guk horretarako egiten dugu musika, baina horren atzetik dagoen guztia gogorra da. Jendaurrean, telebistan... egon baino lehenago gogotik egin behar da lan. Nahiz eta musika egiteko prest egon, hau ez da goizeko 10etatik

*Bizi-bizirik izeneko diskoarekin datorkigu ekainean Gozategi, baina aurretik beste bost eginak ditu taldeak, eta 15 urtetako ibilbidea erreparatu dugu Asierrekin. Hasierako diskoetako hautsa astindu, tarteko urteetako sekretutxo batzuk kontatu eta gaur egungoari heldu dio. Ez da ez isilik geratzen den horietakoa.*

12etara kanta bat egingo diat esatea. Inspirazio unea edo musika egiteko egonezina

bilatu egin behar da.

Jendeak jakin behar du abesti bat sortu duenak zer-

bait sentitu duela eta hori transmititu nahi izan duela. Abesti hau txarra da esatea errore handia da eta askotan egiten dugu. *Hau nik ere egingo nuke...* baliteke, baina ez duzu egin. Deskalifikatu beharrean, ez dut gustuko edo ez dut ulertzen esaten jakin behar da.

Hala ere, musikaria izatea ez da jendeak uste duen bezain polita, ez: politagoa da.

**Atzetik lan gogorra dagoela jakina da, baina zuek arra-**

### **kasta lehen diskotik izan zenuten.**

Zorte handia izan genuen, gure musika estiloan aitzindari izan baikin. Hasi ginean erreferentzia bakarra zaharrak ziren: Epelde eta Iturbide, Martin eta Egañazpi, Laja ta Landakanda...

Trikitixa beti izan da base-ri giroko edo erromeria tradizioa letarako musika eta Oriotik bederatzina trikitilari eta pandero joleko taldea aritzen ginen herriz herri. Beraz, Gozategiren oinarria lehenagotik dator.

Gero, 93an eta 94an, Ainhoa, Iñigo Goikoetxea eta hirurok aritu ginen erromerietan eta emanaldiaren bukareran jendeak taldearen izena galdetzen zigun. Bakoitzak berea esaten zuen, baina, azkenean, trikiti munduan Gozategi anai-arrebak bezala ginenez ezagunak, guk ere izen horri eutsi genion. Inongo handinahirik gabe make-ta bat grabatu genuen Urnietan, eta kristoren arrakasta izan zuen. Ekainean kaleratu genuen eta irailerako 2.000 kopia saldu ziren.

### **Eta hortik lehen diskoa, 95ean.**

Bada, bai. Iraila horretan bertan Elkar diskoetxetik deitu ziguten eta maketako 9 abesti baino gehiago egiten bagenituen diskoa grabatuko genuela esan ziguten. Gure ametsetan ere ez zen sartzen hori; burutik pasa ere ez.

Lehenago entzuten ez zen lekuetan hasi zen entzuten trikitixa: pubetan, tabernetan, 40 *principales*, beste irratietan... Oihartzun handialortu zuen trikitixak.

Gero, bigarren lana kaleratu genuen, *Ainhoa*, eta lehenengoaren arrakasta gairatu zuen.

### **Nor-nori-nork, Nirekin eta Kalanbreak. Lehen diskoetako hiru singleak udako abesti izan zirela esan daiteke. Nola egiten da hori?**

Memento honetan hasten gara egindakoa errepasatzen eta harriritu geratzen gara. Baina dena gu konturatu gabe

gertatu zen; ziztu bizian. Horrek aukera eman digu hiru aldiz Argentinan izateko, Uruguain, Finlandian, Belgikan, Bartzelonan, Madrilen... Tokiak eta lagunak ezagutzea da musikak ematen duen gauzarik ederrena.

Hiru single horiek baino gehiago esango nuke hiru diskoek izan zutela arrakasta. Hamapiko urte beranduago, oraindik edozein herritako festetan entzun daitezke disko horietako abestiak, lehen bezalaxe. Eta kirol probatan, euskararen aldeko festetan...

### **Egunonek, berriz, aldaketa ekarri zuen. Zergatik?**

Lauzpabost urte egin genituen puntaren puntan, baina guk ez genuen inolako ambizioirik. Horrela, ikusi genuen ez genuela abestiak egitea egiten bukatu nahi. Atsedean bat behar genuen, non ginen eta nora jo nahi genuen jakiteko.

Aldi berean, beste bi faktorek ere baldintzatu zuten egoera hura. Batetik, guk irekitako bidean beste batzuk ere ibiltzen hasi ziren: Etzakit, Alaitz eta Maider, Maixa eta Itziar... gazteak gogor zetozen. Bestetik, Ainhoa eta Iñigo umeak egin eta egin hasi ziren eta nik, diskoren bat kaleratu nahi izanda ere, berentzat denbora utzi behar nien, taldea Ainhoarekin eta Iñigorekin mantentzea baitzen nire lehentasuna.

Atzera begira jartzen naiz eta lehen diskoarekin eginiko elkarrizketa bat datorkit burura. Orduan nioen handik 15 urtera talde bezala jarraitu nahi nuela, eta bete dugu.

### **Tarte horretan Xaloa ostua ireki zenuten eta 2006an Ainhoak taldea utzi zuen.**

Bai. Ainhoak hiru ume hezteko ardura zuen eta hori erromerietan ibiltzea baino garrantzitsuagoa eta gogorragoa da. Bera taldean izatea gustatuko litzaidake, baina erabaki errespetagarria eta duina da. Ateak zabalik dituela badaki. Noizean behin aritzen da zuzenean eta diskoetan ere beti hartzen du parte.



Musikan ezin da jakin zer ekarriko dizun hurrengo egunak, eta musika ogibide bakarra izateak, azkenean, gauza ez duinak egitera bultzatzen zaitu; edozein musika edo abesti egitea aurrera egin ahal izateko. Ostaturia ireki genuen, orain eta etorkizunean beste euskarri bat izateko.

### **Noiz arte ikusten zara ohol-tza gainean?**

Adinean aurrera egiteak ez nau beldurtzen. Zorionez, barruan oraindik egonezina eta abestiak egiteko grina badut. Dohaina edo pribilegioa da 6. diskoa kaleratzearegon eta oraindik musikalki bizirik sentitzea.



BALEA MUSIKA IDEIAK

Zuzenekoa kaleratzeko aukera beti hor dago, *Grandes éxitos* deitzen zaiona ere bai, baina zenbat eta gehiago atzeratu, orduan eta aberatsagoak izango dira, noizbait egiten badira, jakina.

**Artzai blues andate kon luz eta horrelakoak entzun dai-**

**tezke zuen abestietan. Inor kexaka etorri al zaizue inoiz?**

Ez diogu goizeko haizeari abesten. Askoz zailagoa da zerbait aldarrikatzea, bustitzea, eta hori gustatzen zaigu. Euskal gatazka hau existituko ez balitz, ez dakit abestiak egiteko egonezinik izango nukeen.

#### JENDEAREN IRITZIA

**“Abesti hau txarra da esatea errore handia da eta askotan egiten dugu. Hau nik ere egingo nuke... baliteke, baina ez duzu egin. Deskalifikatu beharrean, ez dut gustuko edo ez dut ulertzen esaten jakin behar da”**

#### HASIERA

**“Handinahirik gabeko maketa grabatu genuen Urnietan eta kristoren arrakasta izan zuen. Ekainean kaleratu genuen eta irailerako 2.000 kopia saldu ziren”**

#### AITZINDARI

**“Lehenago entzuten ez zen lekuetan hasi zen entzuten trikitixa: pubetan, tabernetan, irratietan... Oihartzun handia lortu zuen”**

#### ARRAKASTA

**“Hamapiko urte beranduago, oraindik edozein herritako festetan entzun daitezke lehen diskoetako abestiak”**

#### IRONIAK

**“Artzai bluesi tokatu zitzaion... eta orain Josu Jon Ueini. Pentsatu nahi dut berek hori entzutean ez dutela gaizki hartzen eta barre egiten dutela”**

#### BIZI-BIZIRIK

**“Disko berrian ez da izango kalejirarik, baina bai trikitixa eta arin-arina. Beste guztiak abestiak izango dira, martxa handikoak. Melodiak, berriz, azkarrak bezain sakonak”**

Zure herriaz kezkatzen bazara, gaiaz interesatzen bazara, zure ideiak esan ditzakezu inori minik egin gabe. Guk ironia puntu batekin egiten dugu.

*Artzai bluesi tokatu zitzaion, Marianok lurra joik... eta disko berrian Josu Jon Ueini. Pentsatu nahi dut*

berek hori entzutean ez dutela gaizki hartzen eta guk adina barre egiten dutela.

Abesti horiek herrikoetan bezain beste entzuten dira batzokietan eta letrak direla eta ez dut uste inork Gozategi gutxiago maite duenik.

**Badakigu disko berriak Bizi-**

**bizirik duela izena eta Josu Jon Ueini eginiko abesti bat dagoela –karkara.com atarian dago entzungai–. Zer gehiago aurkituko dute Gozategiren zaleek?**

Gozategi izaten jarraitzen du, baina, igoal, ausartago. Inongo konplexurik gabe aritu gara eta esango nuke egin ditugun konponketak gogoragoak edo biziagoak direla. Tronpetak sartu ditugu, bateria ere libreagoa da... Uste dut instrumentu bakoitzari etekin gehiago atera diogula, bakoitzak bere nortasuna du eta, aldi berean, uste dut musikari guztiak oso gustura geratu direla egindako lanarekin. Normalean beti izaten da, bada, gitarrak pisu gutxiegi duela edo baxuari gorputza falta zaiola... beharrezko oreka lortu dugula esango nuke.

Asier Erzilla aritu da teknikari, David Nanclares ekoizpen lanetan eta hiruon artean lan talde polita egin dugu abestien nondik norakoa erabakitzeko. Sortutako abestiei beharrezko kolorea eman diegu, lanean beharrezko musikarekin jolasean ibili baikara. Grabaketa estudioz aldatu dugu eta ezin hobeto aritu gara Bilboko Balean.

### Hori soinu aldetik. Eta eduki aldetik?

Orain arte beti bost dantza doinu sartzan genituen: bi trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina; edo trikitixa, bi porrusalda, fandangoa eta arin-arina; edo bi arin-arin, fandangoa, trikitixa eta porrusalda... beti kalejira bat, bals mexikarra... Bada, oraingoan ez. Oraingoan ez da izango kalejirarik, baina bai trikitixa eta arin-arina; eta beste gainontzeko guztiak abestiak izango dira.

Abestiak martxa handiak dira eta melodiak azkarrak bezain sakonak.

Esaterako, bada abesti bat *Nafarroa bizirik* izenarekin, Xabier Sukiak idatzi duena. Kanta horrek letra aldetik duen pisua ikaragarria da, Euskal Herriko gatazka nondik datorren azaltzen du, Karloagnoren garaitik hasita,



KARKARA

eta historia irakasgai handi bat da, oso modu politean egina. Doinua eta gaia primeran uztartu dira eta ez dugu kalzadorearekin borrokan ibili beharrik izan.

Beste abesti batean, *Ez da nahikoan*, hain zuzen, estribilloak dio: *Zirelako gara eta garelako izango dira*. Kanta horretan esaten duguna da ez dela nahikoa atentaturik ez dagoen bitartean bakean gaudela pentsatzea, horrekin konformatzen bagara ez existitzeko arriskua dugula. Kontuan izan behar dugu Euskal

Herria gure buruan eta gure bihotzean bakarrik existitzen dela. Euskal Herriko mapatik Iparralde eta Nafarroa kenduko balizkigute zerbait faltan bilatuko genuke, baina ez gara konturatzen hori gu engainatzeko irudi bat besterik ez dela, eta errealitate bihurtzeko borrokatu beharra dagoela.

18/98 auziari buruzko abesti bat dugu, beste bat *Josu Jon Ueini* egindakoa... eta bals mexikar zoragarri bat. Horretarako zer hobea Salatxo abesbatzako ahotsak baino, nik

telebistako *Oh Happy Day!* lehiaketan lagundu nien bezala berek ere guri laguntzea. Oriotarren parte hartzea ezinbesteko ikusten dut diskoetan. Laguntza eskatu eta berehala onartu zuten erronka.

### Eta nola moldatu dira Orioko mariatxiak?

Kanta baten bukaera bakarrik egin dute eta, egiatan, ematen dion ukituarekin uste genuena baino hamar aldiz hobeto gelditu da. Abesti hori entzutean oilo-ipurdia jartzen zait oraindik.



*Musikari baten ibilbidea hainbat proiektuk osatzen dute, normalean disko forman islatzen direnak, eta bakoitza berezia izaten da, arrazoi askogatik. Hamabost urtetan seigarren diskoa du Gozategik eta, taldeak izaera berarekin jarraitzen badu ere, musika asko aldatu da lehenengotik azkenekora. Hara zein den Asierren beraren iritzia.*

**GOZATEGI**

1995

**ELKAR**Estudioa: Elkar (Donostia)  
Teknikaria: Cesar Ibarretxe

Bataioa –taldearen aurrengo lana izan zelako–, naturaltasuna –diskoa espero gabe etorri zelako–... modu askotara definitu nezake. Aurrenekoa izanagatik begirune berezia diot disko honi, ibilbide luze baten eta konta ezineko esperientzia askoren hasiera izan zelako.

**AINHOA**

1996

**ELKAR**Estudioa: Elkar (Donostia)  
Teknikaria: Cesar Ibarretxe

Goia jo genuen. Ordura arte emandako kontzertu guztiekin talde bihurtu ginen. Erakutsi genuen aurrenekoa, oso ona izanda ere, ez zela bakarria izango eta etorkizunean asko genuela emateko. 50.000 kopia baino gehiago saldu ziren eta Euskal Herriko diskorik salduenetarikoa da.

**KALANBREAK**

1998

**ELKAR**Estudioa: Elkar (Donostia)  
Teknikaria: Cesar Ibarretxe

oinu aldetik ukitu elektronikoa emateaz gain, urte horietan behin baino gehiagotan kalanbreak sentitu genituen disko honekin. Heldutasunak lasaitasuna eman zigun egindako gauza bakoitza hobeto dastatzeko. *Coca-Colaren* salmentak ere gorakada nabarmena izan zuen..

**EGUNON**

2000

**ELKAR**Estudioa: Elkar (Donostia)  
Teknikaria: Jean Phocas

Teknikari eta lan talde aldaketarekin beste sentsazio batzuk izan genituen eta aurrera begira zer egin pentsatzeko parada eman zigun milurte berriko gure lehen diskoak. Badirudi disko hau entzuteak guraso izateko sena pizten duela; Anhoari eta Iñigori hala gertatu zitzaien, behintzat.

**GOZTGI.KOM**

2006

**BABELMUSIK**Estudioa: Garate (Andoain)  
Teknikaria: Haritz Arreguy

Sei urte luzetako egonezinak lan batean biltzeak bere ondorioak dakartza eta, esperientzia medio, urterik erosoan eman dizkigu disko honek. *Goztgi.com* kaleratu ondoren, jendeak Gozategirenganako zuen jarrerak harritu, hunkitu eta benetan harro sentiarazi gaitu.

**BIZI-BIZIRIK**

2010

**BALEA MUSIKA**Estudioa: Balea (Bilbo)  
Teknikaria: Asier Erzilla

Diskoaren grabaketaren emaitzarekin oso gustura gaude, baina entzuleek edo denborak jarriko dute bere lekuan, lan hau zer izan den definitzeko. Guk aro bat bukatu eta beste berri bat hasten denaren sentsazioa daukagu. Ea orain artekoa bezain polita den.

## ADARRETATIK HELDUTA

# Ordaindu dezatela berek!

Zapatero eta Lopez-en gobernuek proposatutako neurriak langile jendearen lan eta gizarte eskubideak murriztearen ildotik doaz. Kapital eta espekulatazaileak sortutako krisia langileok urte askotan irabazitako eskubideak galduz ordaindu dezagun nahi dute.

Zapaterok eta Lopezek aditzera eman dute defizit publikoa gutxitzeko gastu soziala murriztu behar dela -2010ean pentsioak bere horretan utziz, menpekotasun prestazioak murriztuz, jaiotzetako 2.500 eurotako diru laguntza ezabatuz- eta sektore publikoko langileen soldatak murriztu behar direla. Neurri horiekin gobernuek milioika euro aurreztu nahi dituzte defizit publikoak gutxitzeko.

Defizita ingresatzen dena baino gehiago gastatzen denean sortzen da. Defizit horrek bi arrazoi izan ditzake: gutxi ingresatzea edo gehiegi gastatzea. Hego Euskal Herriari edo espainiar estatuari dagokien defizit publikoa ez dator Europaren batez bestekoa baino gehiago gastatzen delako, baizik eta presio fiskala, hau da, zerga guztien bitartez jasotzen den dirua, Europakoa baino askoz ere txikiagoa delako. Hala ere, ez dute fiskaltasuna errebisatzerik nahi eta, gainera, ukitu duten guztietan kapitalari eta aberatsenei zergak jaisteko izan da. Beraz, proposatzen duten irtenbide bakarra dagoene-



LAURA GONZALEZ DE TXABARRI  
SINDIKALISTA

**Ez dute fiskaltasuna errebisatzerik nahi eta, gainera, egin dutenean, aberatsei zergak jaisteko izan da**

**Agintean ditugunak oso eskuzabalak dira aberatsekin eta oso zorrotzak langile eta pentsiodunekin**

ko txikia den gizarte gastua murriztea da.

Gainera, Espainiako gobernua bankaren eskuetan 230.000 milioi euro jar-

tzea erabaki zuen 2009an, eta 61.000 milioi jarri ditu dagoeneko.

Murrizketek beste zerbitzu publikoei ere eragiten diete, hala nola osasun eta hezkuntza arloan non Eusko Jaurlaritzak eta Nafar Gobernuak kalitatea pixkanaka-pixkanaka narriatzeko aukera egin duten, gastua gutxitzeko eta enplegua murrizteko.

Argi dago agintean ditugunak oso eskuzabal dihardutela aberatsenekin eta oso zorrotz langile eta pentsiodunekin. Errenta altuei, enpresei eta kapitalari zergak jaitxi dizkiete eta dirutza ikaragarriak eman bankari; orain faktura langileok ordaindu dezagun nahi dute.

Eta guzti hori plan orokor baten atal bat besterik ez da. Aurki izango dugu lan erreforma, lan merkatuan dagoen prekaritatea areagotuko duena eta horrekin batera negoziazio kolektiboaren erreforma, hemen negoziatzeko ahalmena murriztuko duena.

Erasoa gelditzeko garaia da, politika aldatzeko garaia da. Ezinbestekoa da krisialdiari aurre egin eta enplegua sortzeko aurrekontu eta ekonomia politika bideratzea. Derrigorrezkoa da gastu soziala handitzea eta politika fiskal birbanatzailea sustatzea.

Garaia da murrizketa guzti horien aurka gure ahotsa altxatzeko. Berek ordaindu dezatela beren krisia.

## NIRE HONETAN

## Larria da; lasai

**E**saiguzu zein den zure ideia ezberdinak izan gaitetzen, zeren kontra zauden baino gehiago zer egiteko prest.

Zenbat aldiz erabili ote ditut Berri Txarraken abestiak azaldu nahi dudanerako. Beste adibide bat, egokiagoa: *Eskasa da, eskasa gure belaunaldiaren lorpenen zerrenda zuria.*

Esaldi horiek aipatuta, nabarmena izango da nondik nora jo nahi dudana, eta ulertu ez duenari argi eta garbi esango diot: gauzak ez dira beren kabuz aldatzen, egiten, lortzen... eta okerragoa da besteek egiteko zain egotea.

Zein ondo pasatzen dugun Gazte Fesztetan, herria alaituz gaztetxea aldarrikatzen. Zeinen ondo Bertsio Gauetan, eltzetsuan bi *duro* bota eta gaztetxearen alde *la ostia* egin bagenu bezala. Baina kazerolada ziztrin baterako gazteriari dei egin eta inor ez zen agertu plazara. Aitzakia badugu oraingoan ere: *kartelak kendu dituzte eta ez nintzen enteratu! Eurria ari zuen! Azterketetan nintzen!* ...guztiak egiak.

Ezin inori ezer aurpegiratu, bakoitza libre omen da eta nahi duena egiteko. Baina ez dut uste bidea ezer ez egitea denik.

Gaztetxerik ez dugula? *Larria da; lasai, aspaldi ohitu ginen.*

MIKEL ARANZABAL

**XABIER URRETABIZKALA**

Instalazio elektrikoak  
- TDT antenak  
- Atebain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arantziak, 31 38810 OLEBUKI

tel/fax: 943 89 00 69  
Bikizakaldea, 4: 20.600 ZARAUZE

**URBIDE**

ITU, RGINENZA, BEROGINTZA,  
GASA, BAINU ERAKUSKETA

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erremiortak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

**URAITZ**

kuriosologia

Enfiteak 3 Tlf: 943 84 18 97

## MOILA BAZTERRETIK

# Jaso dominoa, bota kartak



JON AGIRRESAROBÉ TORROTZO

**D**ominoan hasi ginen aurrena. Etxe atarian jarri, zerbeza kaxen gainean eseri eta utzi denbora pasatzen. Zertarako urduri jarri? Rona eta konpainia pixka bat, ez dugu besterik behar. *Ez al duzu lanik egiten?*

*Zer jan behar duzu bihar?* Ez hasi goizean goizetik galde-rekin. Bizi, berriketan egin, bizirik dauden monumentuez gozatu, gezur batzuk kontatu...

Bi egun besterik ez genituen iraunkale-kantoiaren ezer egin gabe. Herdoila beso azpian; egon ezina. Dominoa utzi eta karta jokoan probatu genuen. Baita laster aspertu ere. Musak ez du loteriak bezala ilusiorik banatzen. Etxe atarian jarraitzen dugu parooan, etorkizunaz kezkatuta, elkarri kartak botatzen hasi garenean. Ea zein dira zure galderak, zein dira bizitzako zure preokupazioak?

*Zer diomaitasunaz?* Urrezko txota eta bi zaldi atera dira. Saltoka-saltoka zabiltzala, alegia. Urrezko txotarenak ez du azalpenik behar, nabarmen

gelditu zara. *Laguntasuna?* Biko ezpata. Ziztadaren bat jaso zenezake, lagun bakarrak emanak biak. *Kopazko kartek hitzegiten dute diruaz, zer dio patrikaren osasunaz?* Lauko kopa, lauarekin hasita ezustekoren bat jaso duzu. 400 euroko masailekoa deklarazioan. Pasa den astean kontaktatu zenidan. *Osasuna?* Bastoia atera da, buruko mina danba eta danba. Hara zure etorkizuna. Dena asmatu didazu.

*Hara, badut beste galdera bat? Aurten bai?* Estropadei buruz ari naiz. Mahai gainera lau karta. Erregea, zaldia, bosta eta sei. Hogeita hamaiika. Aurten bai, aurten bai!!! *Reala igoko al da?* Ez naiz atrebitzen karta botatzera. Zergatik ez dugu musean jokatzen... Lauko urrea. Urrezko

**Etxe atarian jarraitzen dugu parooan, etorkizunaz kezkatuta, elkarri kartak botatzen hasi garenean. Ea zein dira zure galderak, zein dira bizitzako zure preokupazioak?**

lau puntu eta golaberagea. Baina hori egunkarian irakurri dut eta ez kartetan. Beste ron pixka bat?

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO BAGASTI  
Tel / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orrio (Gipuzkoa)

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak:** Arrain zopa  
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORRIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

**TAILER MEKANIKO A**  
**MANTEROLA S/L**  
TOKAOKAK - BALBULAK

Santiago ezua - 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: mmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**  
AENCR 180 9002  
Estaraka balbula  
AENCR kalitatea ziurtatzen duena

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiaroko zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Karciak, eskalak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 Zarauz  
Tel: 943 88 41 37 / Fax: 943 88 41 41  
e-mail: harnospit@tanaspil.net

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk  
telefon: 943 83 08 12

PSICOTERAPIA - Gestiozko Aniztasun eta Nafaren Watsuok  
NUTRIZIONISTA - Gestiozko Aniztasun

**sinergia** investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORRIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**PERTSIANAK**

AKO MAAZ

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**iñaki argazkiak caperochipi**

*ezkontzako asmorik bai?*

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**ITZALA**

*kartelak jokatzen dituzte*

tel. 943 83 12 59

Faroeko bakailaoa daukagu

**ITSAS MENDI**

*gutzizak*

Casco Garbit, 5 Tel. 943 24 07 74 Orio

**islada**

ISLEKIN ZARLEPO

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Sakurua kalea, 2 behea Orio 20810  
Tel. 943 131 896  
e-maila: isladakort@hmcmail.com

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olasakoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**HAIZE BERRI**

*lehema-jakien lefategia*

Plater konbinatuak, bokatak, hamburgerak, razoulak, eguzko menues...  
eta atsara eramateko zerbitzuak

Bake lekuak 16.000 m<sup>2</sup> 10000 m<sup>2</sup> Urtarrilaren 16tik

**Goizeko KAFETEGIA**

943 83 28 55

Aita Leizkundi, 33 behea - ORIO  
Autobus parada ondoan

**Gabon TABERNA**

plater konbinatuak apintxoak

Tfnak: 943 83 06 09

**Carmen eta Txomin ARRAZDOKIAK**

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**Elkar**

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

400 m<sup>2</sup>ko instalazioan  
943 83 18 45 / 415 80 23 28  
ZARAUZ

Igo zaitez haize berrietara!

**Galerria**

943890416-677149334  
galerria@orio@hotmail.com

**Dorronsoro Denda**

1961etik zure ondoan

**AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN**

Tel 943 83 09 37

Kinikladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 88

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIREN TXARTELAREKIN

**Automóviles ZARAUZ**

ETREAN ZERBITZU ORIGINALA

ZARAUZ, Tel. 943 13 13 50

**ARKAITZ Taberna**

Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

ABESLARIKALEA, 1 TEL: 943 83 16 57

**ATC TORREALDAY aholkularitza**

Olarriaga Aholkulariak Sozietate Mugatua

Berezitasunak:

- ✓ Aholkularitza: fiskala, laborala, jundikoa, kontabilitatekoa.
- ✓ Diru-laguntzen eta bestelako informazioa enpresentzat eta autonomoentzat, finantzaritza barne.
- ✓ Aseguru artekaritza.

Berekoek 4. behea, Tel. 943 85 48 38 Fax: 943 85 34 08 www.aldorrealday.com e-mail: olarriaga@olarriaga.com



## Oporretako arrantzak

**G**ustura ikusten da Antilla hondartzako tabernaren atarian dagoen laukotea, harrapatu berri zuten arraina amutik zintzilik zutela, zer nolako gustua zuen jakiteko irrikaz, seguru asko. Pozari eutsi ezinik daude gizonetzkoak, purua ahoan dutela, argazkilariari eguneko altxorra harro erakutsiz. Kilo batzuk izango zituen lupiak eta pisua ere bai, hortaz!

Udako oporrak ziren eta

kanpoan bizi ziren Munioetako Antonia –ezkerrean– eta Manuel –eskuinean– Oriora etorriak ziren, eguzkiak iraun bitartean, etxeokak ikusi eta lagunak bisitatzera.

*Buruhandineko* Joakin Alberdi adiskidearekin elkartuta egin zuten bazkari bila itsasora ateratzeko plana eta bete-betean asmatu zuten gainera.

Ezkerretik eskuinera: Munioetako Antonia

Lertxundi eta haren senarra, Jesus Arenaza; ezkondu ondoren, Bilbora joan ziren biak bizitzera. Joakin Alberdi eta Manuel Lertxundi: Errenteriara ezkondu zen Manuel.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

ARGAZKIA: ARTXIBOA  
INFORMAZIOA: ELENA ARRUTI

HEARTZAN  
PATXI OLIDEN  
ANABAYEN

**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktiboak: tripa, odaki,  
txakorra, txarizo, krakotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Orioko  
Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
Frontoi andoan  
Tfnua: 943 83 01 89

## KRITIKA



200 lagun bildu ziren Orioko Herri Ikastolako aretoan Mikel Lizarralde mediauma entzuteko.

KARKARA

## Bi munduren arteko lotura paregabea izan zen Mikel

**G**ero eta jende gehiagok sinesten du bizitza honen ondoren badagoela beste bizitzaren bat. Falta dituen lagun eta senitartekoak ondo daudela jakin nahi izaten du batek, lasaitzeko. Uste dugu horixe bera dela maiatzaren 29an Mikel Lizarralde mediauma ikusi eta entzutera horrenbeste herritar joan izanaren arrazoia.

Hitz gutxitan: hunkigarria izan zen saioa. Mikelek badu gainerako mediumek ez duten ezaugarri bat: badauki asko eta askorentzat era

horretako lehen hitzaldi eta esperientzia izango dela, urduri daudela eta ezer baino lehen, horiek lasaitzen saiatzen da, eta jendeak eskertu egiten du.

Behin bertaratutako guztiak entzuteko prest zeudela ikusita hasi zuen, hortaz, solasaldia: interesgarria eta atsegina. Hildakoan ezagutzen ez dugun *mundu* bat badela demostratzeari ekin zion.

Hitzak praktikara eraman zituen ondoren. Hurbileko arimen mezuak helarazi zituen han geunden askori.

Zirrargarria izan zen, Orioko herri txikia izanik, nolabait ere albokoaren egoeraren jakitun izaten garelako askotan. Intimitate falta horrek berak botako zuen, seguru asko, jende asko atzera eta ez zen joango; azken finean, jendaurrean egote hutsagatik eusten diogu negarrari.

Hiru orduko saioa izan zen, baina uste gabe, di-dabatean pasa zitzaizkigun hirurak. Beste hiru ere gustura hartuko genituen.

ANTONIO ABAD ETA  
MERTXE TALAVERA

## IKASLEAK IDAZLE



IBAI BASTOS |  
DBH 4. MAILA

## Mapilleko zisneak

**O**rio eta Aginaga arteko bidean autoz pasaz gero, Mapill baserriaren parean, Orio ibaian, bi zisne ikus daitezke, noizbehinka. Berez oso polita da, baina arazoa zisneak erasotzen hastean dator.

Arraunlariak bertatik arraunean pasatzen diren bakoitzean, zisneek zakarki erasotzen diete. Arrautzak dituztelako daude horrela. Arrautzatik zisnetxoak jaio direnean, ordea, jarrera ez dute aldatu, kumeak babestu nahian baitabilza. Hiru kumeak heltzean eta Txokoaldera joatean, arazoa amaituko zelakoan geunden arren, gurasoek berriz ere arrautzak errun dituzte, eta erasokor jarraitzen dute.

Mapilleko zein inguruko baserritakoak uxatzean min egiteko beldur badira, zisne horiek gizakiok pasatzen ez garen lekuren batera eramatea proposatzen dugu, inor eraso ez dezaten.

Ille granadina  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Ensko Gudari, 8 - Injio  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**ODITZ**  
Ginena ezabatzen dutak  
tel. 943 53 00 59

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361  
**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

## INKESTA

Orioko Udalak bat egin du Usurbilgo Itunarekin. Atez atekoaren aldeko apustua egin du; hau da, egunean zabor mota bakarra jasotzearen alde.

ZABORRA BILTZEKO ZEIN SISTEMA IRUDITZEN ZAIZU EGOKIENA?

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean.

Aurrekoan: festa-indarrak sanpedroetan ala sanikolasetan gastatu behar dira? Jasotako erantzunak: %49,06ri biak berdin ospatu behar direla iruditzen zaio; %35,85aren ustez sanikolasak gehiago; %3,77arentzat sanpedroak gehiago; %1,89ak ez daki; eta %9,43ari bost axola zaio.

## OSPAKIZUNA



## Aimar eta Naiara

Zortzi bat urte elkarrekin egin ondoren, maiatzaren 22an ezkondu ziren Aimar Galarraga eta Naiara Jaka oriotarrak. Elizkizunaren bukaeran, sorpresa ugari izan zituzten gainera: dantza saioa, harri jasotzaileak eta trontzalariak. Ikuskizun bikaina ezkonberrientzat.

Bazkaria, berriz, Lasarteko Txixtardin Beltza jatetxean egin zuten eta parrandarako Zarautzera joan ziren, goizeko ordu txikiak arte. Amerika aldean dabil orain bikotea. Zorionak!

## ZORIONAK!



## Etorkinei

Primeran atera da aurten ere Kultur Aniztasunaren Jaia. Antolaketa lanetan ibili diren guztiei inolako meriturik kendu gabe, etorkinak ekarri nahi ditugu txoko honetara, festa bizi egin dutelako eta beren kultura erakusteko eta irakasteko lanean dotore aritu direlako.

Ia urte osoan aritu dira jo eta ke prestaketekin, dantza emanaldiak entseiatzen, kanturako ahotsak berotzen, handik eta hemendik beren sorterriko jakiak eskuratzen... eta euskararekin ere esfortzua egin dute, batzuk, gutxienez. Bertakotzeko bidea zabalik dute.

tectra, etc. lotxo, eskaketa...  
 beari zure azala lanak  
 egiteko lankarri  
 Udazkene bitxia. 1.0669.42.32.70x ZARAUTZ

**LUXARBE**  
 igeltsaritza  
 Igeltsaritza orokorra, denetarik egiten dugu.   
 Presupuestoak eskatu konpromisonik gabe   
 Lan txukuna eta merkea   
 Tfnoak: 943 83 59 00

**libe**  
 dietista  
 nutrizionista  
 Dieta personalizatua  
 Orain arazoren  
 elikadura tratamendua  
 GORRITZ,  
 KONPOSIZIO  
 MONDIA  
 OROJATEN IKASTO  
 PLANGINTZAK  
 MENJER  
 PLANIKAZIA  
**ZATOZ  
 ETA ZAINDU  
 OSASUNA!**

**LURDES**  
 ARMAZTEGIA  
  
 Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LOBETXU** JATETXEA  
  
 Eusko Gudari, 18 - Tel. 943 83 00 07

**Lizaso**  
 dekorazioa  
  
 Eusko Gudari, 48  
 Tf. 943 83 07 82 Fax: 943 83 07 80

## OROIMENAREN KUTXA



Garai horretan nekazaritzak eta elizak presentzia handia zuten oriotarren bizitzan.

I.ITURAIN

## JAIOTAKOAK

- Shua Osa Iribar, Orion, maiatzaren 27an.
- Iraia Gallego Solaberrieta, Orion, maiatzaren 21ean.

## EZKONDUTAKOAK

Naiara Jaka de la Mata eta Aimar Galarraga Ibarguren, Orion, maiatzaren 23an.

## HILDAKOAK

- Trinidad Mayoz Pagola, Orion, maiatzaren 23an. 84 urte.

## Orio orain 45 urte (eta II)

**A**na M. Etxaidek 1968an argitaratu zuen *Castellano y vasco en el habla de Orio* liburuko datu batzuk plazaratu nituen aurreko artikuluan. Gaurkoan beste batzuk, Orioko orduko gizartea nolakoa zen azaltzeko.

Etxaidek zioenez, 3.100 biztanleetatik 500 inguru etorkinak ziren, Andaluzia eta Extremaduratik etorriak; industrian eta etxegintzan peoi zebiltzan eta harreman eta giro ona zuten bertakoekin. Arazo politikorik ez zuten zegoen.

Apaizak lau ziren; igandean mezak, bost, haietako bakarra erdaraz. Dotrina hasi berria zen bi hizkuntzetan ematen, ordura arte euskara hutsez ematen zen. Arantza-

zu aldizkariak 210 harpide zituen Orion; Zeruko Argiak, 40. Biak euskara hutsezko astekariak ziren.

Lehen Hezkuntzako 9 eskola zeuden (bi, baserri-tan). Bi baserri-eskoletan bakarrik zebiltzan neska-tilak elkarrekin, gainontzekoetan bereizita. 100 bat haur Zarauzko eskoletara joaten ziren. Gazteen artean ez zegoen analfabetismorik eta sei ziren unibertsitatean zebiltzan oriotarrak. Denek erdara hutsean ikasten zuten, Orion zeuden irakasle gehienak euskaldunak izan arren.


Ana Mariak 2.000 galderaz osatutako galdeketa egin zuten 65 urte bitarteko sei oriotarri. Gazteenak 12 urte bete arte joanak ziren eskolara, zaha-

rrek 9 urterekin utzi zuten eskola. Haietako bat ez zen sekula eskolara joan, eta soldaduskan ikasi zuen irakurtzen eta idazten.

Gero, 20 eta 85 urte arteko hainbat jenderi elkarrizketak grabatu zizkion. Lanak Orioko erdararen fonetika, morfologia, sintaxia eta lexikoa aztertu zuen. Lau hiztun mota bereizten zituen Etxaidek Orion: euskaldun elebakarrak, gutxi ziren eta denak zaharrak; erdaldun elebakarrak, Espainiako etorkinak, %10; lehen hizkuntza euskara zuten elebidunak, herritar gehienak; eta lehen hizkuntza erdara zuten elebidunak, etorkinen seme-alabak.

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.  
(Jan Anuz)

Beserriak: gaitzarria eta agurakio estrukturaren aditua

Ebren berrikuntzak

- mabeak
- elizak
- instalazioak
- berriak

Tf: 688 718 868 (Jan Anuz) Estrekoalei, 30-38/Orio

**KOLON TXIKI**  
ERAKUNTZA  
MATEKOR

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

 **kutxa**



KARMELE GARMENDIA | MANDALA IRAKASLEA

# “Norberaren oreka aurkitzen laguntzen dute mandalek”

**Badira bost urte Orioko Mandalara taldeko irakaslea dela Karmele Garmendia. Aurten, gainera, Mandalara astea antolatu dute lehen aldiz, maiatzaren 28tik ekainaren 4a bitartean.**

## Zer dira mandalak?

Sanskritotik datorren hitza da mandala eta budismoan eta hinduismoan erabilitako ikurren irudikapenak edo diagrama konplexuak dira, zirkulu edo gurpil sakratuak.

Zirkulu horien barruan margotzen dugun guztiak gure garunean eragina du.

## Antzinatik dator orduan?

Bai, izatez aspaldikoak badira ere, Carl Gustave Jung psikiatra izan zen ikerketa sakonena egin eta berak lortutako informazioa mundurazabaldutuena, duela mende bat inguru. Gerra garaian, bere arima-egoera nolakoa izan, halako mandalak margotzen zituela konturatu zen Jung eta orduan hasi zen gaiaren mamia lantzen. Gerora, jende askok eta askok aztertu ditu mandalak.

Egun, terapia gisa ere erabiltzen dira. Nolabaiteko trauma duen batek margotutako mandalak bere inkonziientean ezkutuan dauden kontuak argitara ekartzen ditu.

## Nola interpretatzen da mandala bat?

Lau zatitan banatuta dago zirkulua eta non eta nola margotzen den, esanahi ezberdina du, zati horietako bakoitzak garuneko zati bat ordezkatzen baitu. Erabiltzen diren koloreak, tonuak, geometriko formak... denak du zentzua. Azken finean, norberaren oreka aurkitzen, lasaitzen eta erlaxatzen laguntzen du



Karmelek berak margotutako mandalaren aurrean.

KARKARA

**Trauma duen batek margotutako mandalak bere inkonziientean izkutuan dauden kontuak argitara ekartzen ditu**

teknika honek.

Mandala mota asko daude –artistikoak eta terapeutikoak– eta horietako bakoitza egiteko zenbait arau edo pauso jarraitu behar dira; alde aurretik eratu eta zehaztutako eredu batzuk badaudela, alegia.

**Ikaragarri ondo joan da Mandalara astea. Ez genuen horrelako emaitzik espero. Oso gustura gaude egindakoarekin**

Bestalde, testuarekin osatutako mandalak ere badira.

## Nolakoa izaten da zuen saio bat?

Etetik prestatuta ekartzen dut saio bakoitza eta hemen elkartzen garenean galdera bat egiten diet ikasle-

ei, adibidez: *ausart al nago gaur?*

Zirkulu sakratua eta erabili behar dituzten arketipopak –egunerokotasunean erabiltzen ditugun sinboloak: ikuspegi onarekin erlazionatzen den arranoa, izarra, bihotza...– ematen dizkiot bakoitzari eta handik aurrerako norberaren gain dago. Collage moduan, mandalak sortzen joaten dira. Behin bukatuta, ikus daiteke zeinen ezberdinak diren lan guztiak, oinarri beretik abiatu diren arren. Guztiok ezberdinak garen neurrian, hala izan behar dute mandalek ere.

## Nola egin zara zu irakasle?

2002. urtean Ahimsa Larakin hasi nintzen margotzen, beti gustatu izan baitzait pintatzea eta esku ona baitut. Lehenengo saiora mandalak zer ziren jakin gabe joan nintzen eta harrapatu egin ninduen segituan. Berarekin hiruzpalau urte ikasten pasa ondoren, herrian taldea sortu eta irakasle egitera animatu ninduen. Asko kostatu zitzaidan gero pausu hori ematea, neure burua ez nuen beste irakasteko bezain prest ikusten. Psikologia aldeari errespetua nion.

Hasieran, 2005ean, ahoz ahoko gauza izan zen, nire burua probatu nahi nuelako aurrena. 5-6 lagun elkartzen ginen. Taldea zabaldu dugu orain eta dozena bat gara.

## Zer moduz joan da Mandalara astea?

Ikaragarri ondo. Txundituta geratu gara Mikel Lizarralderen hitzaldiaren arrakastarekin. Ez genuen uste horrenbeste lagun bilduko genituenik; 200, alajaina! Gainerako guztiak ere primeran joan dira, oso gustura gaude.

denon artean gaurko hondartzahobetzeko elkarlanean jarduteko.

**ORIOKO EZKER ABERTZALEKO UDAL TALDEA**

## Montserrat Berriari

Kontu itsusiak azkar kontatzen ditugu; kontatu, kritikatu eta zabaldu, errieta egin da, haserretuta edo zaputzean. Gauza onengatik esker onekoak izatea ahaztu zaigun garaian, horixe egin behar dut jarraian nik: lanak lan Getariako portura joan nintzen astearen hasieran, herriko arrantzaleak noiz sartuko zain. Egia esan, aurretik esana zidaten eguerdi aldera lehorrean izango zirela (zuri ere eskerrik asko hain fin nirekin kontatzeagatik, Leandro) eta argazki politen bat ateratzeko esperantzarekin nengoan.

Itsasontzi bat sartzen ari zela ikusita, korrika egin nituen portu zaharretik lonjarako metroak (nire arnas hauspoa entzun zuenak kilometroak zirela pentsatuko bazuen ere). Bidean Orioko ontzi bat pasa nuen; sarea hautsita etorri zen eta emakumezkoak lanean ari ziren, eserita, orratz handiarekin josi eta josi.

Iritsi nintzen lonja parera eta hara non, kasualitatez,

Orioko ontzia zen lehorreratzen ikusi nuena: Montserrat Berria. Beno, bertaratu egin nintzen ikusteko nongoa zen, ontziaren aurreko aldean jartzen du eta. Eskerrak! Gurea herri arrantzalea izango da, baina zeharo lehorrekoa, ez daukat arrantzaz ideia askorik eta; antxoa ikaragarri gustura jaten dudala, bai, hori badakit.

Hasi ziren Montserrateko arrantzaleak mugimenduan: ekarri kaxa handiak eta horiek mugitzeko tramankuluak, atera harrapatutako antxoa, eraman pisatzera... eta ni, bien bitartean haiei argazkiak atera eta atera. Asko ikasi nuen egun hartan, arrantzaleek ikaragarri ondo hartu nindute-lako, nire galderei gogoz erantzun zitelako eta gainera, opari eta guzti itzuli nintzelako etxera. Eskerrik asko gizonak!

**LORE**

## Gu, munduko oriotarrak

Gu, Afrikan, Amerikan, Asian edo European jaiotako oriotarrak; gaurko festak batu gaituen herritarrak: emakume, gizonezko, gazte eta zaharrak; zuri, beltz, beltzaran eta (n)abarrak; elkarrekin jan, edan, kantatu eta dantzatuko dugun oriotarrak; ondoko hitzak plazaratzeko ados eta

prestazaltzen gara, herriaren aurrean:

Modu desberdina dugu, elikagaiak prestatzeko; edari desberdinak, egarria asetzeko; doinu desberdinak, kantatzeko; hitz desberdinak, komunikatzeko.

Desberdin dugu jaten eta edaten, desberdin kantatzen eta mintzatzen; baina premia berdina dugu jateko, edateko, kantatzeko eta komunikatzeko.

Berdin asetzen gaitu janak; berdin gustatzen, edanak; berdin gozatzen, kantak eta dantzak; berdin betetzen, solasak.

Gorputzaren kasuan, azalaz bezala; bereizten gaitu, kulturarenean, axalak; axaleko formak; premiak, berdinak ditugu.

Oinarrian, barru-barruan, berdinak gara.

Izadian naturak bezalaxe; gizadian kulturak aniztasun izugarria du; eta aniztasun horrek; harremanean, hartu eta emanean; errespetuan eta bakean; elkarren osagarri egiten gaitu; elkar aberasten gaitu.

Gu, orain hemen gaude, historiako eta unibertso honetan: 2010eko udaberrian, Orion; Eta orain eta hemen herri eder hau gure kulturatik aberastu nahi dugu; gure formatik, aniztasunetik.

Baina garaian garaikoa behar du; eta tokian tokikoa: arbolakegurra, neguan elurra.

Orion, Euskal Herrian, euskara da jatorrizko hizkuntza; Munduko toki honetan, berotzen gaituen astroari eguzki esaten zaio; bizia eman zigunari: ama. Gutako batzuek ez dugu izango euskara ikasteko zoria; baina gure seme-alabek ikasiko dute. Haiek jakingo dute zer den eguzkia, zer, ama; eta ulertuko diete Errikotxiako bertsolariari; agian haiekin kantatuko.

Euskaraz, gazteleraz, arabieraz, wolofez...; horixe esan nahi izan diogu Orioko herriari; denok bate-rara.

**MUNDUKO ORIOTARRAK**

### ITSASOA

Ekaina	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
04	09:51 eta 21:52	03:21 eta 15:27	
05	10:59 eta 23:41	02:49 eta 16:42	
06	12:24 eta _____	06:11 eta 18:42	
07	00:45 eta 13:36	07:06 eta 19:51	
08	01:56 eta 14:28	08:10 eta 20:41	
09	02:48 eta 15:11	08:59 eta 21:22	
10	03:32 eta 15:49	09:41 eta 22:00	
11	04:12 eta 16:26	10:20 eta 22:38	
12	04:51 eta 17:04	10:59 eta 23:16	
13	05:30 eta 17:43	11:38 eta 23:55	
14	06:11 eta 18:23	12:18 eta _____	
15	06:53 eta 17:05	00:36 eta 13:01	
16	07:38 eta 19:51	01:20 eta 13:46	
17	08:27 eta 20:42	02:07 eta 14:36	
18	09:22 eta 21:40	02:59 eta 15:33	

### ZAINZAKO BOTIKAK

#### EKAINA

- 4an, Iriarte.
- 5ean eta 6an, Larrañaga.
- 7an, G. Artiñano.
- 8an, Azaldegia.
- 9an, Zulaika.
- 10ean, Iriarte.
- 11n, Larrañaga.
- 12tik 18ra, Lasa.
- 19an eta 20an, Etxeberria.
- 21ean, Zulaika.
- 22an, Iriarte.
- 23an, Larrañaga.
- 24an, Mutiozabal.
- 25ean, Etxeberria.
- 26an eta 27an, Larrañaga.

**Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8  
943 13 31 83 Zarautz

**Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17  
943 83 23 98 Zarautz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12  
943 83 29 70 Zarautz

**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16  
943 13 38 14 Zarautz

**Lasa:** Herriko Plaza  
943 83 09 36 Orio

**G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17  
943 13 40 19 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea  
943 13 29 83 Zarautz

**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41  
943 13 39 94 Zarautz

## ANIBARKO PORTUKO JAIK

■ Ekainaren 5ean, Anibarko portuko jaiak: 10:00etan, jaiaren hasiera eta diana. 10:30ean, haurrentzako jolasak. 11:30etan, Gorriti eta bere animaliak; 11:30ean, hamaiketako auzoko jubilatuentzat; 12:00etan, sardina jana eta sagardoa txotxean, bertsolariekin; 12:30ean, patata tortilla lehiaketa eta dastaketa; 15:30ean, mus azkarreko txapelketa; 16:00etan, haurrentzako jolasak, Txurumuski taldearekin; 17:30ean, txokolate jana haur eta helduentzat; 18:00etan, herri kirolak Heldu! taldearekin; 21:00etan, auzoko enafaria.

## DANTZA EMANALDIA

■ Ekainaren 12an, Danbolin Musika Eskolak antolatuta, 4 eta 13 urte bitarteko ikasleek eskainitako dantza emanaldia. Irakaslea: Ander Errasti oriotarra. 18:00etan, Karela kiroldegian.

## IRTEERAK

■ Ekainaren 17an, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, Errioxako Naxerara txangoa. Prezioa: 32 euro. Irteera: 08:00etan Donostia alderako autobus geltokitik. Txartelak ekainaren 7an



## Itsasadarra aztertzen

Natura 2000 sareko eta itsasertzeko eta ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta horien kontserbazio tresnak egiteko prozesuaren baitan, Oriaren itsasadarraren arazoak landuko dira ekainaren 9an, Zarauzko udaletxearen eraikin berrian (Kale Nagusia 29). 18:30ean hasiko da saioa. Parte hartzeko [www.ingurumena.ejgv.euskadi.net](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net) atarian eman behar da izena.

banatuko dira, 16:00etatik 18:00etara.

■ Ekainaren 12an, Lardizabal eskolako guraso elkarteak antolatuta, Karpin abentura parkera txangoa. Irteera: 08:30ean, aparkalekuan. Itzulera: 21:00ak inguruan. Prezioa:

15 euro, helduentzat; 10 euro eskolaz kanpoko 3 urte baino gehiagoko haurrentzat; dohan eskolako haurrentzat. Ordainketa: 2101 0027 33 0109925925 (Kutxa). Izena emateko azken eguna: ekainak 6, Iturriotzengan.

## ERROMERIA

■ Aian, ekainaren 13an, Ander eta Aintzane Agirrebeña eta Lutxurdio trikitilariak. 18:30etik 21:30era, Andatzako Aristerrazun.

## SANJOANAK ITURRIOTZEN

■ Ekainaren 18an, mus txapelketa.  
■ Ekainaren 24an, meza 10:30ean, ume eta loreen bedeinkapenarekin; herri kirolak 12:00etan. Aimar Irigoien eta Izeta II. harri jasotzen eta Erasun eta Lizaso aizkoran eta segan; ondoren Zubeldia eta Irazu bertsolariak; egun osoan, Tapia eta Leturia trikitilariak.  
■ Ekainaren 25ean, meza 12:00etan; gauean, erromeria Elustondo anai-arebakekin.  
■ Ekainaren 26an, Izurtzun, Olaso eta Zetain bertsolariekin afaria, 21:00etan; ondoren, erromeria Laja eta Narbaizarekin.

## AFARIA

■ Orion, ekainaren 12an, 1962. urtean jaiotako enafaria. Poteoa: 20:30ean Bordatxon. Izena ematea: Uranga burdindegian, ekainaren 8a baino lehen.

## AZOKA

### SALGAI

■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 900 423.  
■ Etxea salgai Goikokalen, 150.000 eurotan. Tf: 657 701 911.  
■ Bigarren eskuko altzariak salgai, egoera onean.

Tf: 610 81 80 79.

■ Etxea salgai Eusko Gudarain. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

### ETXE BILA

■ Orion alokatzeko pisu bila

dabil neska oriotarra. 676 44 13 27 (Ghariba).

### LAN BILA

■ Neska gazte eta arduratsuak haurrak udan zaintzeko. Tf: 658 22 55 62.  
■ Edadetuak zainduko

nituzke, egunez edo gauez. Eskarmentuduna. Tf: 616 189 272 (Paulina).  
■ Neska gazte eta arduratsuak haurrak udan zaintzeko. Tf: 664 14 89 92.

**zkue**  
Tf: 943 13 04 38

**Kainu Lorezaintza**  
Muzutruk Loredanda  
Ionezin tekniko paisajista  
lorategi eta terrazen diseinua eta  
mantenua, ureztatze-sistemak eta  
kinaketa espezializatua  
647 02 84 85

egunero-egunero,  
zuekin...  
**www.karkara.com**  
Konektatua!

# BIYONA

**berrikuntzak**



Edificio Axiri, 16  
tel. 943 85 21 10  
**AZKOITIA**

Santiago auzoa, 12  
tel. 943 14 34 43  
**ZUMAIA**

Gesalaga kalea, 18  
tel. 943 14 82 41  
**ZESTOA**

Abendaño, 2  
tel. 943 13 50 16  
**ZARAUZ**



[www.biyona.net](http://www.biyona.net)

**iturgintza** aire girotua  
**igeltseritza** etxeko altzariak  
**arotzeria** sukaldoko altzariak  
**gremioen koordinazioa** bainugelak-zeramika  
gasa-berogailuak